

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### Eguneko arretarako landa zentroa arautzen duen erregelamendua behin betiko onartzea

Laudioko biztanleentzako eguneko arretarako landa zentroa arautzen duen erregelamendua-ren hasierako onespren-erabakia jendaurrean jarri ondoren, Udalbatzaren Osoko Bilkurak 2021eko martxoaren 29an onartua eta ALHAOn argitaratua (43. zenbakia, 2021eko apirilaren 21ekoa), eta epe horretan inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabakia behin betiko onetsita geratu da, 4. artikuluko 7. puntuan xedatutakoaren arabera. Orduan, onspen hori honela geratzen da:

#### EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROAREN ZERBITZU ARAUTZEN DUEN UDAL-ERREGELAMENDUA

##### LEHENENGO TITULUA

#### 1. artikulua. Xedea eta aplikazio-esparrua

Erregelamendu honen xedea da adineko pertsonentzako eguneko arretarako landa-zentroan ematen den zerbitzua arautzea Laudioko udalerrian.

#### 2. artikulua. Eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren definizioa

Eguneko arretarako landa-zentroak zerbitzu integratzailea, prebentiboa, asistentziakoa eta komunitarioa eskaintzen du, zeina aldi batez nahiz etengabe erabil daitekeen. Zerbitzu horren bidez, adinekoek, autonomia-maila desberdina izan dezaketenek, eguneroko jarduerak eta aisialdikoak egiteko laguntza jasoko dute egunez. Erabiltzaileek familia-egitura bat edo laguntza informalen sare bat izango dute, adinekoek etxean bizitzen jarraitu ahal izan dezaten, aldi berean bizi-kalitate egokia mantenduz.

Zerbitzu horri esker, adineko pertsonak baliabide bat izango dute eskura, egunez bertara joan daitezen. Han, beren berariazko arreta-premiekin lotutako laguntza emango zaie.

#### 3. artikulua. Eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren helburuak

Eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuak honako helburu hauek izango ditu:

1. Adineko pertsonen beren ingurune sozialean bizitzen jarraitzeko erraztasunak ematea, behar dituzten zaintzak beren erkidegoan bertan eskainiz.

2. Adinekoen autonomiari eustea eta haien integrazioa eta parte-hartze soziala indartzea. Horretarako, prebentzio-programak sustatuko dira, bai eta gaitasun funtzionalak eta sozialak mantentzeko eta jarduera psikikoa egiteko zaintza arinak eta prestazioak eskaini ere, aisialdiko jardueren bidez eta gizarte- eta kirol-jarduerak garatuz; halaber, zerbitzuaren erabiltzaileak zentroen funtzionamenduan parte hartzera animatuko dira.

3. Adinekoen arteko bizikidetzarako espazio bat izatea, kolektibo horren beharrianak detektatzeko balioko duena, arreta sendoagoak beharko diren eguna atzeratuz.

4. Adinekoentzako arretan erantzunkidetasun soziala sustatzea, laguntza-sareei babesa emanez. Horretarako, sareek beren gain hartzen dituzten kargak arinduko dira eta bakarrik bizi diren adinekoei nahiz haiek zaintzeaz eta artatzeaz arduratzen direnei laguntza emango zaie.

5. Zerbitzu horiek eta bestelako zerbitzu komunitarioak ematen dituzten herrigune txikien arteko komunikazioa ahalbidetzea.

6. Eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren erabiltzaileen eta XXX Udalaren nahiz zentroko langileen arteko komunikazioa ahalbidetzea.

#### **4. artikulua. Eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren prestazioak**

Aipatutako xedeak kontuan hartuta eta horiek betetze aldera, eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuak honako prestazio hauek izango ditu:

a) Informazioa.

b) Jarraipenerako balorazioa.

c) Gizarte-laguntza.

a. Gizarte-hezkuntzako esku-hartzea eta esku-hartze psikosoziala.

b. Estimulaziozkoa edo errehabilitatzailea: trebetasunak garatzea eta eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko gaitasunak suspertzeko jardura eta ariketa errazak egitea.

d) Hezkuntzazkoa: jardura hezigarriak, kulturalak eta aisialdikoak.

e) Egokitutako garraioa, hala badagokio.

f) Mantenua.

g) Bainu geriatrikoa / norberaren higieena.

h) Hala badagokio, arropa garbitzeko zerbitzua.

#### **5. artikulua. Eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren ezaugarriak**

Adinekoentzako eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzua honako ezaugarri hauen arabera eskainiko da:

1) Arreta egunak:

– Oro har, zerbitzua astelehenetik ostiralera eskainiko da, preskripzio teknikoaren arabera.

– Asteburuetan eta jaiegunetan eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzua itxita egongo da.

– Ofizialki jaieguntzat onartutakoak joko dira jaieguntzat.

2) Zerbitzuaren intentsitatea:

Zerbitzuaren intentsitatea ezartzeko, erabiltzaileen premien banakako ebaluazioa hartuko da oinarri gisa.

3) Arretarako ordutegia:

Eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren ordutegi orokorra 11:00/12:00etatik eta 17:00/18:00etara izango da.

Ordutegi orokor hori zerbitzuaren beharrezanaren arabera aldatu ahal izango da.

#### **6. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea**

1. Eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren lehentasunezko arreta jasoko dute mendetasun-arriskuan dauden 65 urtetik gorako pertsonak (MBBn 23 eta 24 puntu dituztenek) edo I. graduako mendetasun-egoeran daudenek, baldin eta MBBn 25 eta 39 puntu artean lortu badi-tuzte.

2. Salbuespen gisa, eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren onuradun izan ahalko dira honako hauek:

a) 60 urtetik gorako pertsonak, bakarrik bizi direnak edo ahultasun-egoeran dauden beste adineko batzuekin bizi direnak, baldin eta etxean eta ingurunean bizitzen jarraitzeko laguntza emango dien baliabide bat behar badute. Egoera bereziak ere baloratu ahalko dira, hala nola familia-txandakatzeak.

b) Familiako beste kide batzuekin bizi diren 60 urtetik gorako pertsonak, baldin eta konpainia egitea edo zaintza-lanetan laguntzea behar badute.

c) Narriadura eta/edo isolamendu soziala direla eta, harreman sozialak, integrazioa eta parte-hartze soziala mantentzeko, hobetzeko eta/edo handitzeko babesa eta gaitasun sozialak behar dituzten 60 urtetik gorako pertsonak.

d) Mendetasun-egoeran dauden 65 urtetik gorako pertsonak, MBBn 39 puntutik gorako puntuazioa dutenak, betiere preskripzio teknikoak hala gomendatzen badu.

#### **7. artikulua. Familia-unitatea**

Erregelamendu honetan aurreikusitako ondorioetarako, familia-unitatea honako kide hauek osatzen dutela ulertuko da:

– Zerbitzuaren onuraduna izango den persona.

– Onuradunaren ezkontidea edo legez aitortutako eta behar bezala egiaztatutako antzeko harreman baten bidez hari lotuta dagoen pertsona.

– Haren ondorengo adingabeak, betiere eskatzaileak haien guraso-ahala baldin badu eta haien mantenu ekonomikoari laguntzen badie, zati batean edo erabat.

– Hemezortzi urteko edo gehiagoko seme-alabak, baldin eta ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna baldin badute, betiere zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira.

– Ikasketa akademiko arautuak egiten ari diren 18 eta 25 urte arteko ondorengoak, betiere eskatzaileak haien guraso-ahala baldin badu eta haien mantenu ekonomikoari laguntzen badie, zati batean edo erabat.

#### **8. artikulua. Zerbitzua eskuratzeko betekizunak**

Erregelamendu honen 6. artikuluan aurreikusitako egoeretako batean egoteaz gain, eskatzaileak honako betekizun hauek bete beharko ditu:

##### **A) Betekizun administratiboak:**

– Eskaera egiten den egunean Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egotea, eta zerbitzuak irauten duen bitartean bertan erroldatuta jarraitzea. Baldintza horretatik salbuetsita geratuko da, teknikariak proposatuta, baldin eta erabiltzailea familia txandakatzeko egoeran badago.

– Araudi honen 6.2. artikuluan jasotako egoeran dauden pertsonak Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean erroldatuta egon beharko dute eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzua eskuratzeko eskabidea egin aurreko hamabi hilabeteetan. Zerbitzuak irauten duen bitartean ere bertan erroldatuta jarraitu behar dute.

– Eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzua haren beharrianak artatzeko baliabiderik egokiena dela adierazi izana preskripzio teknikoan.

##### **B) Beharrianari lotutako baldintzak:**

– Adinekoentzako eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzuak artatzen dituen beharrianak estaltzeko laguntza behar izatea.

– Gaixotasun infekzio-kutsakor edo mentalen bat edukiz gero, dagokion tratamenduari uko ez egitea.

– Jokabide-nahasmendurik ez izatea edota zerbitzuaren funtzionamendua edo bizikidetzara arrunta larriki galaraz dezaketen portaerak ez izatea, edo pertsona berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo profesionalentzat arriskua badakarte.

– Osasun-laguntza espezializaturik edota iraunkorrik behar ez izatea, zerbitzuaren zuzkiduren irismen eta aukeretatik kanpo.

### 9. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaz gain, eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzuko erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

– Duintasuna izateko eskubidea: Pertsona guztiei errespetu, zuzentasun eta ulermen osoz eman behar zaie arreta, modu pertsonalizatuan eta indibidualizatuan, haien lehentasunak, faktore kulturalak edo erlijiosoak eta baldintza fisiko edo psikikoak kontuan hartuta. Hori guztia segurtasun- eta higiene-baldintza onenetan eta arrazoizko epeetan.

– Pribatutasunerako eta konfidentzialtasunerako eskubidea: Eskubide honek informazio pertsonal guztiari eragiten dio, bai intimitateari, bai erabiltzaileen espedientean dauden datuei edo pertsonalki eragiten dien edozein dokumentutan dauden datuen tratamenduari dagokionez.

– Beharrizanen ebaluazio bat izateko eskubidea: Profesionalek beharrizanen ebaluazio pertsonalizatu bat egin beharko dute. Horretarako, kontuan hartu beharko dute erabiltzaileen beraren deskribapena, babeserako sare naturalak emandako datuak eta beste zerbitzu batzuek alde aurretik izan dezaketen informazioa. Ebaluazio horren emaitzak eskatzaileari jakinaraziko zaizkio, eta, prestazioa jasotzeko eskaera onartu ez bada, erreklamazioak jartzeko bideen berri emango zaio.

– Banakako arreta-plan bat edo arreta-plan pertsonalizatu bat izateko eskubidea: Ebaluaziotik abiatuta, pertsona bakoitzak bere beharretara egokitutako banakako arreta-plan bat izan beharko du. Plan hori erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko da, eta erabiltzaileei eta haien zaintzaileei azaldu beharko zaie. Bertan honako alderdi hauek zehaztuko dira: prestazioak, prestazioa emango duten pertsonak, koordinazioaz arduratuko den profesionala eta larrialdi-ka-suetan harremanetan jartzeko telefono-zenbakia. Ebaluazioa berrikusteko data ere jasoko da.

– Autonomia izateko eskubidea: Pertsona guztiek dute modu independentean jarduteko eta pentsatzeko eskubidea, baita kalkulaturako arrisku-maila jakin batzuk onartuta ere. Beren bizimodua eta parte hartu nahi duten jarduerak eta zerbitzuak hauta ditzakete, nahi dituzten erabakiak hartuz. Horretarako, informazio egokia eta ulergarria izan beharko dute.

– Informazioa jasotzeko eskubidea: Erabiltzaileek eskubidea dute gizarte-zerbitzuak eskuratzeko beharrezkoa den informazio guztia izatera. Informazio hori argi, zehatz eta modu ulergarrian helaraziko zaie.

– EAEko hizkuntza ofizialetako edozeinetan zerbitzua jasotzeko eskubidea.

### 10. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 10. artikuluan xedatutakoaz gain, eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzuko erabiltzaileek honako betebeharrak izango dituzte:

– Informazioa emateko betebeharra: Egiazko informazioa eman beharko dute, beharrizanen ebaluazioa egin ahal izateko eta, hala badagokio, banakako arreta-plana edo arreta-plan pertsonalizatua egin ahal izateko.

– Barne-arabidea betetzeko betebeharra: Erabiltzen duten zerbitzuaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko barne-arauak ezagutu eta bete beharko dira.

– Bizikidetzara-erabiltzaileek betebeharra: gainerako pertsonen eskubideak errespetatu beharko dira. Berezi, erabiltzaileen eta profesionalen pribatutasuna eta duintasuna. Eskuratu duten informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko da.

– Instalazioak errespetatzeko betebeharra: Zentroetako altzariak, ondasunak eta instalazioak errespetatu eta behar bezala erabiliko dira.

– Hitzorduak errespetatzeko betebeharra: zerbitzu bat emateko ezarritako datak eta orduak errespetatuko dira. Arrazoren batengatik zerbitzua eskuratu ezin bada, behar besteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko da.

– Gizarte-zerbitzuei behar besteko aurrerapenarekin eta gehienez ere 30 eguneko epean jakinarazi beharko zaie egoera sozioekonomikoan izandako edozein aldaketa esanguratsu, dagokion ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera.

– Organo eskudunari jakinarazi beharko zaio erabiltzaileak bere egoeran izandako edozein aldaketa, baldin eta aldaketak zerbitzua eskuratzeko eskubidearen aitortpenari eragiten baldin badio. Horretarako, hamabost egun naturaleko epea izango du, aldaketa gertatzen denetik zenbatzen hasita.

Aipatutako betebeharren bat betetzen ez bada, zerbitzua eteteko edo amaitzeko prozedura hasiko da, erregelamendu honetan araututako prozeduraren arabera.

### **11. artikulua. Eskatzaileen zerrenda**

Eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren eskatzaileen zerrendaren bitartez antolatuko da zerbitzua esleitzeko lehentasuna. Horretarako, erregelamendu honen I. eranskinean zerbitzua jasotzeko ezarritako baremoa aplikatuz eskuratu diren puntuak hartuko dira kontuan.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako eskatzaileen zerrendan barne hartuak izan ez diren pertsonak, beren espedientea berrikusteko eskatu ahal izango dute, egindako balorazioa alda lezakeen inguruabar pertsonalen bat aldatu denean, behar bezala egiaztatuz.

### **12. artikulua. Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskabidea**

Erregelamendu honetan araututako eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko, interesdunek inprimaki normalizatua eskatu beharko diote organo eskudunari. Inprimaki hori eskatzaileak sinatu beharko du eta udalak horretarako gaituta duen edozein erregistrotan aurkeztu beharko du, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduan edo erregistroetan.

Prozesuak iraun bitartean, interesdunak edozein momentutan egin dezake atzera eta, hori egin nahi izatekotan, idatziz egin beharko du. Hala jakatuz gero, espedientea artxibatu egingo da.

Era berean, gizarte-langileak txostena igorri ahal izango du espedientea artxibatzeke, eskatzaileak edo bere ordezkariak berariazko idatzizko ukapena egin dutenean.

### **13. artikulua. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren edo baliokidea den edozein identifikazio-agiriren fotokopia.
- Familia-liburua, familia-unitatean 18 urtetik beherakoren bat badago.
- Mendetasunaren eta/edo desgaitasunaren balorazioa, soilik balorazio hori beste autonomia-erkidego batean egin denean.
- Egoera ekonomikoari buruzko datuak:
  - Eskabidea egin aurreko hamar urteetako ondasun higigarrien eta higiezinen zinpeko aitortpena.
  - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken aitortpenaren fotokopia, edo, halakorik ezean, aitortpena egitera behartuta ez dagoela ziurtatzen duen agiria, Ogasunak igorritakoa (azken hori ez da beharrezkoa izango aitortutako azken ekitaldian Araban zergaduna izan bada).
  - Edozein kontzepturengatik diru-sarreraren egiaztatzea: pentsioak eta gizarte-aurreikuspeneko prestazio publikoak, pribatuak eta atzerrikoak, nominak, enpresa-jardueren etekinak eta abar.

- Kapital higiezinaren etekinengatik diru-sarreraren ziurtagiria, halakorik izatekotan.
- Bankuko egoera guztien ziurtagiri eguneratua, eta kapital higigarriaren etekinak.
- Arabako lurraldetik kanpo dituen jabetzen titulartasunaren eta katastro-balioaren ziurtagiria.
- Ezarritako prezioa erakunde eta kontu korrante jakin baten bidez ordainduko da hilerorik. Beraz, erakundea nahiz kontu korrontearen zenbakia jakinaraziko dira.
- Erregelamendu honen 6.2 artikuluan a), b) eta c) letretan jasotako egoeretan dauden pertsonen kasuan, lehen mailako arreta-zentroaren txosten mediko eguneratua aurkeztu behar da.
- Gizarte-zerbitzuek interesgarritzat jotzen duten beste edozein dokumentazio.

Eskatzaileak ez badu bere egoera ekonomikoa baloratzerik nahi edo ez badu egoera hori sinesgarriro justifikatzen, bere egoera ekonomikoa kontuan hartzeari uko egiten diola ulertuko da eta, beraz, zerbitzuaren gehieneko tarifa ordaindu behar du eta 0 puntu lortuko ditu bere egoera ekonomikoaren balorazioan, Sartzeko baremoaren I. eranskinaren V. apartatuan aurreikusitakoan.

Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta 8.3. artikulua aplikatuz, herritarrek ez dute aurreko agiriak aurkeztu beharrik izango, agiri horietako edozein administrazioaren esku badago. Horretarako, kasuan kasuko agiria noiz eta zer organoren aurrean aurkeztu zuten adierazi behar du interesdunek. Udaleko edo aldundiko gizarte-zerbitzuek ezin badituzte aipatutako dokumentuak eskuratu, agiriok aurkezteko eskatu ahal izango diote interesdunari.

Eskabidearekin batera aurkeztutako agirietan zerbait faltako balitz edo akatsen bat egongo balitz, agindeia egingo zaio eskatzaileari, hamar eguneko epean beharrezko agiriak aurkeztu edo ikusitako akatsak zuzen dituzan; era berean, jakinaraziko zaio hori egin ezean eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko dela.

Eskatzaileak eta, hala badagokio, familia-unitatea osatzen duten gainerako kideek baimena emango diote udalari edo Arabako Foru Aldundiari izapide egokiak egin dituzan haien inguruko datuak bildu edo egiaztatzeko. Datu horiek eskatzaileak araudi honetan ezarritako betekizunak betetzen dituen egiaztatzeko baino ez dira erabiliko eta, hala badagokio, zerbitzua finantzatzeko betekizun eta baliabide ekonomikoak egiaztatzeko.

Datuak faltsutzeak eta ezkututzeak zerbitzuaren eskatzaile-izaera galtzea dakar, eskatzaileak izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

#### **14. artikulua. Izapidetzea**

Erabiltzaileen beharrezko ebaluazioa eta gizarte-txostena nahiz proposamena Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean ezarritako zehaztapenen arabera egingo dira.

##### **A) BEHARRIZANEN EBALUAZIOA.**

— Eskatzailearen etxebizitzari (hala badagokio, etxebizitza ibiltariari) dagokion udaleko gizarte zerbitzuetako gizarte-laneko teknikariek egingo dituzte eskabidearen izapidetzea, balorazioa eta beharrezko ebaluazioa.

— Aurkeztutako dokumentazioa udaleko gizarte-zerbitzuetako teknikariek aztertuko dute, eta dagozkion kudeaketak eta jarduketak egingo dituzte honako alderdi hauek baloratzeko:

— Eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak egiteko laguntza-beharrak, bere burua zaintzeko, jaikitzeko eta oheratzeko, janzteko, ibiltzeko, elikatzeko, garbitzeko eta esfinterren kontrola mantentzeko.

– Gizarte- eta familia-arloko egoera, kontuan hartuta elkarrekin bizi diren pertsonetik harremana eta haien ingurune soziala, bai eta familia- eta gizarte-sareak eskatzailearen arreta-beharrei erantzuteko duen gaitasuna eta aukera kontuan hartuta ere.

– Etxebizitzaren egoera, higiene-, ekipamendu-, bizigarritasun- eta irisgarritasun-baldintzei dagokienez, laguntza teknikoaren beharra, eta haren kokapena ingurunean.

– Egoera ekonomikoa.

#### B) GIZARTE-TXOSTENA / PROPOSAMENA.

Udaleko gizarte-zerbitzuetako gizarte-laneko zerbitzu teknikoek banakako arreta programa prestatuko dute edo, hala badagokio, arreta pertsonalizatua emateko programa. Bertan honako alderdi hauek zehaztuko dira:

– Zerbitzua jasotzeko eta eskabideak aurkezteko betekizunak betetzen diren.

– Hala badagokio, betekizunak betetzetik salbuesteko proposamena, arrazoiak azalduta.

– Eskatzailearen eta, hala badagokio, bere familia-unitatearen inguruabar pertsonalak eta familia- eta gizarte-arloko inguruabarrak.

– Hala badagokio, zerbitzua emateko proposamena, arrazoiak azalduta.

– Hala badagokio, zerbitzu bereziak emateko proposamena, arrazoiak azalduta.

– Hala badagokio, zerbitzua ukatzeko proposamena, arrazoiak azalduta.

#### 15. artikulua. Ebazpena

Behin eskaera aztertu eta baloratu ostean, eta gizarte-txostena eginda dagoenean, proposamen teknikoa prestatuko da. Ondoren, organo eskudunari bidaliko zaio, eta hark ebazpen arrazoitua emango du, eskatutako zerbitzura sartzeko eskaera onartuz edo deuseztatuz.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak hilabeteko epea izango du gehienez, eskaera jaso zenetik zenbatzen hasita, espedientearen inguruko izapideak egiteko.

Gehienez bi hilabeteko epean eman beharko da ebazpena, eskabidea udal-erregistroren batean sartzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori eten egingo da, baldin eta eskaerak zuzendu behar badira jakinarazpena egin eta bertan adierazitakoa bete bitartean denbora luze igaro delako edo emandako epea igaro delako edo, bestela, Arabako Foru Aldundiari eskatzailearen autonomia baloratzeko nahitaezko txostena eskatu behar zaiolako, bai eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritako gainerako baldintzetako bat gertatu bada ere.

Aurreko atalean aurreikusitako epea igaro bada berariazko ebazpenik eman gabe, ulertu ahal da eskaera ukatu egin dela (nolanahi ere, erakundeak ebazpena emateko betebeharra izan dezake), pertsona interesdunak aukerako berraztertze errekurtsioa edo administrazioarekiko errekurtsioa aurkeztu ahal izateko.

Ebazpena baiezkoa izatekotan, honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

– Hala badagokio, eskaera zerbitzu-eskatzaileen zerrendan sartzea.

– Zerbitzua ematea, honako alderdi hauek zehaztuz: zerbitzuaren iraupena, intentsitatea eta kostua, bai eta onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa ere.

– Ebazpenean adieraziko da, halaber, zerbitzurako eskubidea aitortzeak berekin dakarrela eskatzailearentzat eta, hala badagokio, haren legezko ordezkariarentzat edo haren izatezko zaintzailearentzat, eskubide horri eragin diezaiokeen edozein aldaketa organo eskudunari jakinarazteko betebeharra, aldaketa hori gertatu eta hamabost egun naturaleko epean.

Ebazpena ezezkoa izatekotan, horretarako arrazoiak azaldu beharko dira. Honako kasu haue-  
tan eman liteke ezezko ebazpena:

- Zortzigarren artikuluan azaltzen diren betekizunak betetzen ez badira.
- Eskatzaileak, berak bakarrik edota senideen laguntzarekin edota beste baliabide pertsonal batzuekin, eskabidea eragin zuten beharizanak behar bezala asetzeko aukera badu.
- Zerbitzua emateko eskumena beste administrazio publikoren batena bada, zerbitzuaren izaera edo eskatzailearen egoitza non dagoen kontuan hartuta.
- Zerbitzua emateak erabiltzaileari zein zerbitzua ematen duen langileari arrisku fisiko edota psikikoak eragin diezaiekeela uste bada.
- Behar bezala arrazoitutako beste arrazoiren bat badago.

Ebazpenaren aurka (aldekoa nahiz kontrakoa), zeina legez agindutako epean eta formalita-  
teekin jakinaraziko den, dagokion errekurtsioa jarri ahalko da, Administrazio Prozedura Erkidea-  
ren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz. Epe hori  
amaitu eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

Hala badagokio, aldeko ebazpena zerbitzua ematen duen erakundeari ere jakinaraziko zaio,  
eta hark, zerbitzua emateko kontratuan jasotzen den epean eman beharko du.

#### **16. artikulua. Premiazko egoerak**

Salbuespen gisa, eta premia larriko edo presazko kasuak artatzeko, udaleko gizarte-zerbitzuek  
zerbitzua hastea eta berehala ematea proposatuko dute, eta urgentziazko prozeduraren arabera  
izapidetuko da. Onuradunak adinekoentzako eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzura  
jo ahal izango du 48 orduko gehieneko epean.

Gehienez ere hamabost egun naturaleko epean izapidetuko da eskabidea, prozedura arrun-  
taren arabera.

#### **17. artikulua. Zerbitzuan onartua izatea**

Zerbitzuan onartua izateko zerrendan jasotako ordenari jarraituko zaio eta, horretarako, guz-  
tira eskuratutako puntuak hartuko dira kontuan, erregelamenduaren I. eranskinean zehaztutako  
irizpideen arabera eskabidea baloratu ostean.

Eskabideek puntuazio bera jasotzekotan, lehentasuna emango zaie I. graduko mendetasuna  
duten pertsoneri (MBBn 25 eta 30 puntu artean lortu dituztenei) edo mendetasun-arriskuan  
daudenei (MBBn 23 eta 24 puntu).

#### **18. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa**

Udaleko gizarte-zerbitzuetako teknikariek etengabeko jarraipena egingo dute, zerbitzuak  
onuradunen beharriaz egokitzen zaizkien ikusteko, eta beharrezkoa izanez gero, kasuan  
kasuko aldaketak proposatuko dituzte; horrez gain, onuradunekin batera ebaluatuko dute pro-  
posatutako helburuak lortu diren.

Aldian behin ebaluazioak egin ahal izango dira, bai onuradunak eskatuta, bai zerbitzua  
eskaintzen duen erakundeak eskatuta, edo protokoloetan eta kontratuetan ezarritako moduan.

#### **19. artikulua. Egokitzeko aldia**

Erabiltzaile guztiek hiru hilabeteko probaldia gainditu beharko dute.

Egonaldiaren lehen hiru hilabeteetan, adinekoentzako eguneko arreta zentroaren zerbitzua  
erabiltzen duten pertsonak zerbitzuaren ezaugarrietara eta funtzionamendura egokitzeko aldia  
egongo dira. Ingurune fisikoan eta sozialean errazago integratzeko beharrezkoa den laguntza  
teknikoa eta pertsonala jasoko dute.



Gizarte-zerbitzuetako teknikariek eta/edo, hala badagokio, zerbitzua kudeatzen duen erakundeko profesionalak sortzen diren arazoei buruz hitz egingo dute une oro erabiltzailearekin, eta egokitzapen egokia lortzeko konponbideak bilatuko dira.

Erabiltzailearekin batera irtenbideak bilatzen ahaleginduta ere, pertsona horrek zerbitzura egokitzeko zailtasunak dituela egiaztatzen bada edo zerbitzuak pertsona horren premiak ez dituela behar bezala estaltzen ikusten bada, egoera baloratu eta beste proposamen bat egin beharko da. Horretarako, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek txostena egin beharko dute alde zuzenetik.

Egindako proposamena erabiltzaileari igorri beharko zaio, eta hark hamabost eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko.

Alegazioak aztertu ostean, organo eskudunari behin betiko proposamena helaraziko zaio, eta hark ebazpen arrazoitua emango du. Pertsona hori zerbitzutik irteera ebaztekotan, alternatibaren bat proposatuko da, halakorik egonez gero.

Ebazpenaren aurka (aldekoa nahiz kontrakoa), zeina legez agindutako epean eta formalitateekin jakinaraziko den, dagokion errekurtsioa jarri ahalko da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz. Epe hori amaitu eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

## **20. artikulua. Zerbitzua etetea**

Honako arrazoi hauengatik etengo da eguneko arretarako zentroaren zerbitzua:

- a) Erabiltzailea aldi batez ospitaleratzen badute.
- b) Gizarte-baliabideak eta gizarte- eta osasun-baliabideak erabiltzeagatik erabiltzaileak zerbitzua aldi batez erabili ezin badu.
- c) Erabiltzaileak zerbitzua erabili ezin badu urtean berrogeita bost (45) egun baino gutxiagoko aldietan, zerbitzua azken aldiz erabili zuenetik aurrera zenbatzen hasita. Egoera berezietan, epe hori luzatu egin ahal izango da. Erabiltzailea familia-txandakatze egoeran baldin badago, aldi hori txandakatze-epeen arabera handituko da.
- d) Erabiltzaileak 10. artikuluan ezarritako zereginen bat betetzen ez badu, baina zerbitzua amaitzeko nahikoa arrazoi ez bada.
- e) 8. artikuluan ezarritako baldintzetako bat aldi batez galdu badu.

eguneko arreta zerbitzuaren prezio publikoa arautzen duen ordenantza fiskalak zerbitzua etenda dagoen bitartean plaza gordetzeagatik erabiltzaileak egin beharreko ekarpena ezarriko du.

Aurreko paragrafoan zehaztutako d) edo e) etete-arrazoiak gertatzen badira, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari jakinarazi beharko dio etetea, eta erakunde horrek erabiltzaileari edo, hala badagokio, haren ordezkariari jakinaraziko dio. Azken horiek hamabost egun baldioduneko epea izango dute dagozkion alegazioak egiteko.

Alegazioak izapidetu ondoren, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak proposamen bat igorriko dio ebazteko eskumena duen organoari. Proposamen horrek honako aukera hauetako bat jaso beharko du:

- a) Zerbitzuaren titularra izaten jarraitzea.
- b) Zerbitzuaren titularraren izaera aldi batez galtzea eta eskubidea etetea.

Behin proposamena jasota, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du.

Ebazpenaren aurka (aldekoa nahiz kontrakoa), zeina legez agindutako epean eta formalitateekin jakinaraziko den, dagokion errekurtsioa jarri ahalko da, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz. Epe hori amaitu eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

**21. artikulua. Zerbitzua azkentzea**

Honako arrazoi hauengatik azkenduko da eguneko arreta zerbitzua:

- a) Erabiltzaileak edo haren legezko ordezkariak zerbitzuari uko egiteagatik.
- b) Zerbitzua emateko ebazpenean aurreikusitako epea amaitzeagatik.
- c) Erabiltzailearen heriotzagatik.
- d) Erabiltzailea beste udalerrri batera lekualdatzeagatik, familia-txandakatzeen kasuan izan ezik.
- e) Onuraduna adinekoentzako eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuarekin bateragarria ez den beste baliabide edo programa batean sartzeagatik.
- f) Zerbitzua ematea eragin zuen beharizanaren arrazoia desagertzeagatik.
- g) Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak faltsutzeagatik edo datuak ezkutitzeagatik.
- h) Zerbitzua jasotzeko eskatutako betekizunen bat betiko galtzeagatik.
- i) Zerbitzuaren jarraipena egiteko eska daitekeen dokumentazioa ez aurkezteagatik.
- j) 30 eguneko epean gizarte- eta ekonomia-egoeraren aldaketei buruzko informazioa ez aurkezteagatik.
- k) Aldi batez eteteko epea igarotakoan zerbitzua berriro ez erabiltzeagatik.
- l) Zerbitzua ematen duten langileak edo beste erabiltzaile batzuk fisikoki edo psikologikoki erasotzeagatik.
- m) Araudi honetan zehaztutako onuradunen betebeharrak behin eta berriro ez betetzeagatik (ordainagiriak epez kanpo ordaintzea, behin eta berriro ez ordaintzea eta abar).
- n) Arrisku fisikoa eta/edo psikologikoa egoteagatik bai erabiltzailearentzat, bai zerbitzua ematen duten langileentzat. Udaleko zerbitzu teknikoek horri buruzko balorazioa egin beharko dute aldez aurretik.
- o) Sei hilabete baino gehiagoko aldi jarraituan zerbitzua eteteagatik, etenaldia indarrean jarri zen egunetik zenbatzen hasita.
- p) Urte naturalaren baitan 45 egun baino gehiagoz zentrorra justifikatu gabe ez etortzeagatik.
- q) Behar bezala arrazoitutako beste arrazoi batzuegatik.

Aurreko paragrafoko d) letratik p) letrara bitartean deskribatutako zerbitzua azkentzeko arrazoiaren bat gertatzen bada, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak erabiltzaileari edo, hala badagokio, haren ordezkariari jakinarazi beharko dio. Azken horiek hamabost egun balioduneko epea izango dute bidezko alegazioak egiteko.

Alegazioak izapidetu ondoren, unitate teknikoak proposamen bat igorriko dio ebazteko eskumena duen organoari. Proposamen horrek honako aukera hauetako bat jaso beharko du:

- a) Zerbitzuaren titularra izaten jarraitzea.
- b) Zerbitzuaren titularraren izaera behin betiko galtzea eta eskubidea azkentzea.

Behin proposamena jasota, organo eskudunak ebazpen arrazoitua emango du.

Ebazpenaren aurka (aldekoa nahiz kontrakoa), zeina legez agindutako epean eta formalitateekin jakinaraziko den, dagokion errekurtsioa jarri ahalko da, Administrazio Prozedura Erkidea-ren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz. Epe hori amaitu eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako.

Aurrekoa ez da aplikatuko eskubidea heriotzagatik edo uko egiteagatik azkentzen den kasuetan; kasu horretan, organo eskudunak espedientea artxibatuko du, aldez aurretik horri buruzko berariazko ebazpena emanda.

Zerbitzua amaitzeko ebazpenaren ondoren, erabiltzaileak berriro ere zerbitzuan sartu nahi duela azaltzen badu, beste eskabide bat egin beharko du eta, hori, araudi honetan zehaztutakoaren arabera izapidetuko da.

Zerbitzua amaitu ondoren erabiltzaileak zerbitzuaren ordainketak ordaindu gabe baditu, horiek ordaintzeko eskatuko da, zerbitzua berriro eman aurretik.

## **22. artikulua. Adinekoentzako eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren barne-funtzionamenduari buruzko arauak**

Adinekoentzako eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuak barne-funtzionamenduko arauak izango ditu, II. eranskinean xedatutakoaren arabera.

## **23. artikulua. Adinekoentzako eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren prezio publikoa**

Une bakoitzean indarrean dagoen ordenantza fiskalak zehaztuko du erabiltzaileek zer prezio ordaindu behar duten adinekoentzako eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren truke.

Zerbitzua ematen duten langileek eta, hala badagokio, enpresa adjudikaziodunek ez dute dohaintzarik ez ordainketa osagarrikerik onartuko, aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzita. Enpresa adjudikazioduna betebeharrak hori betearazteaz arduratuko da.

## **24. artikulua. Finantzaketa**

Adinekoen eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren finantzazioa honako hauen kontura izango da:

– Onuradunak zerbitzuaren finantzaketan parte hartu beharko du, eta organo eskudunak emandako ebazpenean ezarritako zenbatekoa ordaintzeko konpromisoa sinatuko du. Horretarako, onuradunaren baliabide ekonomikoak kontuan hartuko dira, dagokion ordenantza fiskalean jasotakoaren arabera. Betekizun hori betetzea nahitaezkoa izango da zerbitzua ematen hasteko.

– Zerbitzuaren prezioaren eta onuradunak ordaindu beharreko ekarpenaren (kasuan kasuko ordenantza fiskalean jasotakoaren arabera kalkulaturakoa) arteko kenketatik lortzen den zenbatekoa administrazio publikoak ordainduko du.

## **25. artikulua. Eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuaren erabiltzaileen ekarpena**

Erregelamendu honen bidez araututako eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzuaren erabiltzaileak zerbitzuaren prezio publikoa ordaindu beharko du. Zenbateko hori kalkulatzeko, onuradunaren gaitasun ekonomikoa kontuan hartuko da, dagokion ordenantza fiskalean xedatutakoaren arabera.

Erabiltzailearen ekarpena zehazteko, dagokion ordenantza fiskalean jasotako elementuak aintzat hartuko dira.

Gaitasun ekonomikoari buruzko datuetan gezurra esan edo daturik ezkutatzen bada, eskabi-dea artxibatu edo zerbitzua amaituko da, jadanik zerbitzua ematen hasi bada. Gainera, horrek ez dio inolako kalterik eragingo gertakari horietatik erator litezkeen erantzukizunei. Administrazio eskudunak prezioa ordaintzeko laguntza edo hobariren bat eman badio erabiltzaileari, dirulaguntzak itzultzeko prozedura hasiko da.

Erabiltzaile bakoitzak egin beharreko banakako ekarpena ofizioz berrikusi ahalko da, baita erabiltzaileak edo bere ordezkariak eskatuta ere, baldin eta dagokion ordenantza fiskalean xedatutako terminoetan ekarpena aldatzea eragin dezakeen aldaketarik badago betekizun eta inguruabarretan.

Berrikusteko prozedura, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, erregelamendu honetan zerbitzua modalitate arruntean emateko ezarritako prozedurari egokituko zaio.

## LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamenduaren laburpen bat prestatuko da erabiltzaileei emateko.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditzen dira lerrun bereko edo txikiagoko arau guztiak, araudi honetan ezarritakoaren kontra edo kontraesanean dagoen guztiari dagokionez.

## AZKEN XEDAPENA

Araudi hau ALHAOn argitaratu eta handik hamabost egunera sartuko da indarrean.

## I. ERANSKINA

## SARTZEKO BAREMOA

Sartzeko baremoak eskatzaileen zerrenda ordenatzeko irizpideak ezartzen ditu, bai eta zerbitzura sartzeko lehentasuna ezarri ere, gizarte diagnostikoaren arabera.

## BAREMOAREN EGITURA:

| DIMENTSIOAK   | PUNTUAZIO-TARTEAK |
|---|-------------------|
| Eguneroko jarduerak (oinarrizkoak) egiteko laguntza behar izatea // Autonomia eta osasun-egoera | 0-30              |
| Bizikidetzaren eta babes sozialaren egoera  | 0-25              |
| Etxebizitzaren edo bizitokiaren egoera  | 0-10              |
| Egoera ekonomikoa   | 0-30              |
| Familia berrelkartzea   | 5                 |
| <b>Guztira</b>  | <b>0-100</b>      |

## I. EGUNEROKO JARDUERAK (OINARRIZKOAK) EGITEKO LAGUNTZA BEHAR IZATEA // AUTONOMIA ETA OSASUN-EGOERA.

Pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko (jan, jantzi, norbera garbitu) behar duten laguntza-maila baloratzea da helburua, haien autonomia-mailari eusteko eta sustatzeko eta beren ingurunean bizi-kalitate onarekin bizitzen jarrai dezaten laguntzeko.

Balorazio hori egiteko, MBBn eskuratutako puntuazioa erabiliko da, honela:

| LAGUNTZAREN BEHARRARI BURUZKO BAREMOA  | PUNTUAK                     |
|--|-----------------------------|
| MBB 23-39 puntu  | 30 <input type="checkbox"/> |
| MBB >39 puntu  | 15 <input type="checkbox"/> |
| MBB <23 puntu edo mendetasunaren baloraziorik gabe   | 10 <input type="checkbox"/> |
| EGUNEROKO JARDUERAK (OINARRIZKOAK) EGITEKO LAGUNTZA BEHAR IZATEAREN PUNTUAZIOA (30 puntu gehienez ere) | <input type="checkbox"/>    |

## II. BIZIKIDETZAREN ETA BABES SOZIALAREN EGOERA.

Erabiltzaileak bere beharrak estaltzeko duen laguntza-maila ezagutzea da helburua, honako aldagai hauen arabera:

Bizikidetz-egoera: Bakarrik edo norbaitekin bizi den. Beste adineko batzuekin (senitartekoak edo lagunak) edo senide edo lagunekin bizi den.

Sare informalaren existentzia, baliagarritasuna eta eskuragarritasuna (senideak eta/edo lagunak) eta sare horrek ematen dituen babes-motak.

Balorazio hori egiteko, baremo hau erabiliko da:

| GIZARTE- ETA FAMILIA-ARLOKO BAREMOA   | PUNTUAK |                          |
|---|---------|--------------------------|
| 1. Erabiltzailea bakarrik edo norbaitekin bizi da eta honako egoeraren bat bizi du: tratu txar fisikoak edo psikikoak, abusu ekonomikoa, utzikeria egoera, zabarkeria larria oinarrizko arretan, gatazkak eta/edo familiaren desegituraketa larria.   | 25      | <input type="checkbox"/> |
| 2. Erabiltzailea bakarrik edo norbaitekin bizi da eta ez du familiaren eta/edo gizartearen laguntzarik: halakorik ez duelako edo ohiko zaintzaileak ezin diolako arretarik eskaini arrazoi objektiboengatik.  | 20      | <input type="checkbox"/> |
| 3. Bakarrik bizi den eta familiaren/gizartearen laguntza-sare oso txikia duen pertsona; behar duen arretarako laguntza oso urria eta puntuala ematen du sareak. / Familiak gehiegizko kargak edo gizarte-egoera ezegonkorak ditu.   | 15      | <input type="checkbox"/> |
| 4. Erabiltzailea bakarrik bizi da (edo mendatasuna/desgaitasuna duen beste pertsona batekin), familiaren eta/edo gizartearen laguntza-sare bat du, nolabaiteko babesa ematen diona, baina ez da nahikoa erabiltzaileak behar duen arretarako, edo osasun-arrazaioengatik mugatuta dauden edo lan-arloko betebeharrak dituzten pertsonekin bizi da, adinekoari arreta egokia ezin eman diezaioketenak. | 10      | <input type="checkbox"/> |
| 5. Erabiltzailea beste norbaitekin bizi da (mendetasunik ez duena), familiaren eta/edo gizartearen laguntza-sarea du, baina sare hori ez da nahikoa hark behar duen arretarako.   | 5       | <input type="checkbox"/> |
| 6. Erabiltzailea bakarrik edo beste norbaitekin bizi da eta erraz balia dezakeen eta eskuragarri duen familiaren eta/edo gizartearen babesa dauka.  | 0       | <input type="checkbox"/> |
| GIZARTE- ETA FAMILIA-EGOERAREN PUNTUAZIOA (gehienez 25 puntu)   |         | <input type="checkbox"/> |

### III. ETXEBIZITZAREN EDO BIZITOKIAREN EGOERA.

Etxebizitzaren edo bizitokiaren ezaugarriak baloratuko dira, pertsona baldintzatu baitezakete autonomia-mailari eta ingurunearen kontrolari dagokienez.

Kontuan hartu beharreko aldagaiak irisgarritasuna eta bizigarritasuna dira, baremo honen arabera:

| ETXEBIZITZAREN EDO BIZITOKIAREN EGOERAREN BAREMOA  |   |   | PUNTUAK                  |                          |
|--|---|---|--------------------------|--------------------------|
| IRISGARRITASUNA  |   |   | PUNTUAK                  |                          |
| A. Eraikinaren kanpoaldea  | - Ez dauka sartzeko arazorik.   | 0 | <input type="checkbox"/> |                          |
|  | - Etxebizitzara iristeko eskailerak igo edo jaitsi behar ditu, edo arkitektura-oztoporen bat gainditu behar du // Etxebizitza herrigunetik urrun dago, eta zailtasunak ditu oinarrizko baliabideak eskuratzeko. | 2 | <input type="checkbox"/> |                          |
| B. Eraikinaren barrualdea  | - Ez dauka sartzeko arazorik.   | 0 | <input type="checkbox"/> |                          |
|  | - Atarian eskailerak daude igogailura edo etxebizitzara iristeko, eta ez dago horiek ekiditeko sistemarik. // Ez dauka igogailurik.   | 2 | <input type="checkbox"/> |                          |
| C. Etxebizitzaren barrualdea   | - Ez dago arkitektura-oztoporik.  | 0 | <input type="checkbox"/> |                          |
| - Arkitektura-oztopoak daude, mugikortasuna eta moldakortasuna mugatzen dutenak; ez dauka segurtasun- eta/edo egokitzapen-neurririk. |   |   | 4                        | <input type="checkbox"/> |
| IRISGARRITASUNA GUZTIRA (A+ B+ C)  |   |   |                          | <input type="checkbox"/> |

| BIZIGARRITASUNA   |  | PUNTUAK |                          |
|---|--|---------|--------------------------|
| - Ez dauka bizigarritasun-arazorik.   |  | 0       | <input type="checkbox"/> |
| - Mantentze-lan egokiak falta zaizkio.  |  | 1       | <input type="checkbox"/> |
| - Egiturazko arazoak ditu (hezetasunak, komunik ez, sukalderek ez, itoginak, instalazio elektriko eta sanitario eskasak). |  | 2       | <input type="checkbox"/> |
| BIZIGARRITASUNA GUZTIRA   |  |         | <input type="checkbox"/> |
| ETXEBIZITZAREN EGOERAREN PUNTUAZIOA (gehienez 10 puntu)   |  |         | <input type="checkbox"/> |

## IV. EGOERA EKONOMIKOA.

Egoera ekonomikoa baloratzeko familiaren hileko gaitasun ekonomikoa kontuan hartuko da, ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera. 1.500,00 eurotik behera 12 tarte zehaztu dira, progresiboki puntuatuko direnak:

| FAMILIAREN HILEKO EGOERA EKONOMIKOAREN BAREMOA      | PUNTUAK |                          |
|---|---------|--------------------------|
| 500,00 eurora arte                                  | 30      | <input type="checkbox"/> |
| 501,00 eurotik 600,00 eurora                        | 27      | <input type="checkbox"/> |
| 601,00 eurotik 700,00 eurora                        | 24      | <input type="checkbox"/> |
| 701,00 eurotik 800,00 eurora                        | 21      | <input type="checkbox"/> |
| 801,00 eurotik 900,00 eurora                        | 18      | <input type="checkbox"/> |
| 901,00 eurotik 1.000,00 eurora                      | 15      | <input type="checkbox"/> |
| 1.001,00 eurotik 1.100,00 eurora                    | 12      | <input type="checkbox"/> |
| 1.101,00 eurotik 1.200,00 eurora                    | 9       | <input type="checkbox"/> |
| 1.201,00 eurotik 1.300,00 eurora                    | 6       | <input type="checkbox"/> |
| 1.301,00 eurotik 1.400,00 eurora                    | 3       | <input type="checkbox"/> |
| 1.401,00 eurotik 1.500,00 eurora                    | 1       | <input type="checkbox"/> |
| 1.500,00 eurotik gora                               | 0       | <input type="checkbox"/> |
| Ez du bere egoera ekonomikoa baloratzerik nahi.     | 0       | <input type="checkbox"/> |
| EGOERA EKONOMIKOAREN PUNTUAZIOA (gehienez 30 puntu) |         | <input type="checkbox"/> |

## V. FAMILIA BERRELKARTZEA.

Eskatzaileen ezkontidea edo ezkontzaren antzeko harreman baten bidez hari lotuta dagoen pertsona (behar bezala egiaztatuta) eguneko arretarako landa-zentro batean dagoenean. 5 puntu.

## II. ERANSKINA

EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROKO ZERBITZUAREN  
BARNE-FUNTZIONAMENDUKO ARAUAK

- Arau orokorrak:
- Erregelamendu honetan jasotakoa ezagutu eta betetzen saiatu beharko da.
- Bizikidetzara-arauek beteko dira, bai eta higiena eta elkarren arteko errespetua gordeko ere, bai zentroaren barruan, bai zentroak eskaintzen dituen jarduerekin zerikusia duen beste edozein lekutan, giro ona sortzeko asmoz.
- Eskura jarritako zentroko zerbitzuak eta instalazioak behar bezala erabiliko dira.
- Aurkitzen den edozein objektu zentroko langileei edo oinarrizko gizarte-zerbitzuko langileei entregatuko zaie.
- Zentrora balio handiko objekturik edo diru-kopuru handirik ez eramatea gomendatzen da.
- Ezarritako ordutegiak errespetatuko dira. Ordutegian aldaketarik egonez gero, aldaketak aurrerapen nahikoarekin jakinaraziko dira.
- Arreta jarriko da ahoz edo idatziz jakinarazten diren arau eta oharretan, eta horiek betetzen saiatuko da, zentroak ondo funtzionatu dezan.
- Otorduei buruzko arauak:
- Adierazitako orduetan emango dira otorduak.
- Dieta bereziak eskaintzeko aukera egongo da. Kasuan kasuko dieta gomendatzen duen txosten medikoa aurkeztu beharko da horretarako. Menua iragarki-taulan jarriko da ikusgai.

- Ezingo da zerbitzuan janaririk edo tresnarik sartu, ezta atera ere, hala nola mahai-tresnak, edalontziak, platerak eta ezpainzapiak.
- Ganoraz jateko ahalegina egin beharko da, gainerakoentzat desatseginak izan daitezkeen jateko moduak alde batera utzita.
- Arropari eta norberaren higienari buruzko arauak:
  - Zentroa arropak garbitzeaz arduratuko da soilik, zerbitzu hori esleituta duten erabiltzaileen kasuan.
  - Erabiltzaile bakoitzak norberaren higienarako tresnak izango ditu zerbitzuan, eta ordezeko arropa-sorta oso bat.
  - Arropa markatzea gomendatzen da, nahasterik egon ez dadin.
  - Itxura pertsonala zaintzea ongizate-faktorea da erabiltzailearentzat eta inguruko pertsona guztientzat; horregatik, erabiltzailea behar bezala janzte eta garbitzea gomendatzen da, jakina, bere gustu eta ohituren arabera. Arropa eta zapatak ahalik eta erosoan izan beharko dira.
  - Bainatzeko zerbitzua esleituta izanez gero, intimitate-baldintza zorrotzetan egingo da, horretarako adierazitako ordutegien barruan. Erabiltzaileak bainatzeko zailtasunak baditu, zerbitzuko langileek laguntza emango diote.
  - Segurtasunari eta osasun publikoari buruzko arauak:
    - Zerbitzuaren instalazio guztietan erretzea debekatuta dago.
    - Langileekiko harremanei buruzko arauak:
      - Zerbitzuko langileak erabiltzailearen esanetara daude, erabiltzaileak jasotzen duen arreta ahalik eta kalitatetik handienekoa izan dadin.
      - Pertsona guztiengana hurbil daiteke, inolako mugarik gabe, baina adeitasunez eta errespetuz.
      - Arreta jarriko da zerbitzuko langileek zerbitzu osoaren eta erabiltzailearen onurarako ematen dituzten argibidetan.
      - Zerbitzuko langileek laguntza emango diete behar duten pertsonari. Salbuespen gisa, erabiltzailearen senideek edo lagunek eta boluntarioek ere laguntza eman ahaliko dute, betiere zerbitzuaren arduradunarekin edo zerbitzuko langileekin adostuta.
      - Pertsona guztiek, bai erabiltzaileak bai profesionalak, eskubidea dute errespetuz, zuzentasunez eta ulermen osoz arreta pertsonalizatua jasotzeko.
      - Familiekiko harremanei buruzko arauak:
        - Familiekiko komunikazioak behar bezain ohikoa eta arina izan beharko du, batez ere, pertsona berriaren egokitzapen-aldian.
        - Erabiltzailea ez bada eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzura joango, berehala jakinarazi beharko du, zerbitzuak ez-etortzearen berri izan dezan eta, hala badagokio, garraio-zerbitzua bera jasotzera joan ez dadin.
        - Garraioari buruzko arauak:
          - Erabiltzaileak egokitutako garraio-zerbitzua esleituta badu, sartu aurretik egingo zaion elkarrizketan garraio-zerbitzuaren inguruko alderdiak adierazi beharko dira, hala nola ordutegiak, geltokiak eta abar.
          - Egun jakin batzuetan erabiltzaileak garraio-zerbitzurik behar ez badu, beharrezkoa eta premiazkoa izango da adinekoentzako eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzuari edo udaleko gizarte-zerbitzuari jakinaraztea, beste erabiltzaile batzuen ordutegiak kaltetu ez daitezten. Hori ezinezkoa bada, salbuespen gisa, ibilgailuaren gidariari jakinarazi ahaliko zaio. Komeni da ez-etortzearen arrazoien berri ematea.

- Irteeren erregimena eta bisitak egiteko ordutegia:
  - Erabiltzaileak, erabiltzaile izateagatik, zentroan programatutako jardueretan parte hartzeko eskubidea izango du. Erabiltzailea zentrotik irten ahal izango da, betiere zentroko dinamika kaltezen ez badu eta profesionalen lantaldeari jakinarazi ostean. Arrazoiren batengatik erabiltzailea ezin bada bakarrik atera, zerbitzuko langileek, lagunek, senitartekoek edo erabiltzailearekin harremana dutela egiaztatzen duten boluntarioek lagundu ahalko diote.
  - Zerbitzuren batera edo guztietara egun batez edo gehiagoz ez joateko asmoa badu, horren berri eman beharko dio adinekoentzako eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuko langileei eta/edo udaleko gizarte-zerbitzuetako langileei.
  - Senide edo lagunen bisitak, egoera berezietan izan ezik, alde aurretik jakinarazi beharko zaizkie eguneko arretarako landa-zentroko zerbitzuko langileei, horrela, programatutako jarduerak eta horien dinamika beharrik gabe eten ez daitezten.
  - Erabiltzaileari arreta emateko bideak:
    - Zerbitzuan parte hartzea faktore garrantzitsua da, eta oso eragin positiboa du zerbitzuaren eguneroko bizitzan eta martxa orokorrean.
    - Erabiltzaileak zuzenean parte har dezake eguneko arretarako landa-zentroaren kudeaketan. Horretarako, bere iritzia eta iradokizunak helaraz diezazkioke udaleko gizarte-zerbitzuari edo profesionalen lantaldeari, antolamenduaren, funtzionamenduaren edo praktika profesionalen alderdiekin lotutakoak, eta zerbitzuaren kalitatean eragina dutenak edo, zuzenean edo zeharka, beren eskubideen erabileran eragina dutenak.
    - Zentroaren dinamika soziokulturalean parte hartzea borondatezkoa izango da. Erabiltzaileentzat egokituta egongo da eta haien proposamenak ongietorriak izango dira. Erabiltzaileen eskaerei ahal den neurrian erantzungo zaie.
    - Erabiltzaileari zuzenean eragiten dion edozein erabaki kontsultatuko zaio, eta hala eskatzen bada edo komenigarritzat jotzen bada, erreferentziatzko senideari ere egingo zaio kontsulta.
  - Erreklamazioak egiteko prozedura, kexen eta iradokizunen araubidea:
    - Erabiltzaileak edo bere konfiantzako pertsona batek (horretarako beren-beregi izendatutakoak) iradokizun, erreklamazio edo kexaren bat jarri nahi badu, udaleko gizarte-zerbitzuari eska dakiokkeen erreklamazio-orri baten bidez eta/edo zuzenean egin dezake hori. Konfidentzialtasuna une oro bermatuko da.
    - Kexak jaso eta formalki izapidetzeko ardura udaleko gizarte-zerbitzuaren arduradunak izango du.
    - Kexa idazteko arazorik izatekotan, gizarte-langile batek laguntza eta aholkularitza emango dio, kasuan kasuko eskaera izapidetuz eta eskaerari erantzun puntuala emanaz.
    - Horrez gain, iradokizunak egiteko gutunontzi bat dago, non iradokizunak sar daitezkeen. Konfidentzialtasuna une oro bermatuko da.

Laudio, 2021eko ekainaren 9a

*Alkate-udalburua*

**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**